DIMA

**Dimako Udala**

**ALDI BATERAKO ETA IHARDUNALDI OSORAKO UDAL BRIGADARAKO PEOIAK KONTRATATZEKO LAN POLTSARAKO EUSKARAKO PROBAREN EMAITZAK ETA MERITOEN BALIOESPENA EGITEKO AKTA**

**LEHENA.-** Aldi baterako eta ihardunaldi osorako udal brigadarako peoiak kontratatzeko meritoen balioespenaren aurka aurkeztutako erreklamazioak erantzuteari ekiteko saio batzartu da epaimahaia 2020ko urtarrilaren 31n ostirala), Dimako Udaletxean, goizeko 8:00etan ondorengo kideekin Udal Epaimahaia eratu zan:

Epaimahaiburu: Alfonso Ortuondo Egiraun, Dimako Udaleko funtzionarioa.

Epaimahaikide: Félix Pérez Santirso, Dimako Udaleko funtzionarioa.

Epaimahaikide: Nagore Bernaola, Dimako Udaleko funtzionarioa

Idazkaria: Arantza Petralanda Idiondo, Dimako Udaleko funtzionarioa.

**BIGARRENA.-** Jarraian epaimahaiak zabaldutako epean aurkeztutako erreklamazioak erabakitzeari ekin diote ondorengo emaitzarekin:

1. 72.318.213-E NAN zenbakia duenak, 20-01-27an eta 0123 zki.ko sarrera erregistroko erreklamazio bidez, adierazi du berak jasotako puntuaketa txarto zegoela 1 puntu bat gehiago merezi ebalako B gidatzeko karnetari egokituko jakona. Horren aurrean erreklamazio egileari esan beharko jako oinarrietako 4. atalean ( *Laugarrena.— Eskabideak eta onarpena)* hitzez hitz honako hau esaten dala:

   *Eskatzaileek, eskabideagaz batera, alegatutako merezimentuak zerrendatzeko adierazpena aurkeztuko dabe, eta horreek egiaztetako agiri nahikoak be aurkeztuko dabez.* ***Ezin izango da baloratu eskabideak aurkezteko epean alegatu eta egiaztatu ez dan merezimenturik, ez eta, esandako epe horretan alegatuta be, geroago egiaztau danik be.***

   Beraz, erreklamazioa gaitzetsi egin beharra dago, interesdun honek B gidatzeko karnetaren egiaztagiria epe barruan aurkeztu ez ebalako. Edozelan be eta gaia argitzearen aldera, udal ibilgailuagaz egin beharreko proba praktikoan parte hartu ahal izango dau beti be probetara agiri hori ekarten badau.

Ugarana, 1 • 48141 DIMA (Bizkaia) • Tfonoa 94 631 57 25 • Faxa 94 631 92 11 • e-mail: fperez.dima@bizkaia.org • idazkaritza.dima@bizkaia.org • www.dima-udala.org

2. 16.047.235 C NAN zenbakia duenak, 20-01-28an eta 0139 zki.ko sarrera erregistroko erreklamazio bidez, eskaera bi aurkeztu dauz: lehenengoan, adierazo dau berari emoneko puntuaketa txarto egoela seme-alaba bi daukazalako agiria epe barruan aurkeztu ebalako eta hori kontuan hartu ez zala meritoen balioespena egiterakoan; bigarrenean, adierazo dau ez dagoala bertaratzerik izango Epaimahaiak proba praktikorako finkatutako datan eta eskatu dau Epaimahaiak beste izangaientzat finakutako beste egunetako batean etorri ahal izatea. Lehenengo kexaren aldetik, Epaimahaiak, agirisorta berraztertu ondoren, egiaztatu dau agiri hori epe barruan aurkeztu ebala eta ondorioz erabagi dau erreklamazio egileari hiru puntu gehiago jagokozala, guztira: 4. Bestalde, bigarren eskaeraren aldetik, Epaiamahaiak erabagi dau ez onartzea eskaera hori eta ondorioz mantentzea hasiera batean ezarritako data eta ordua erreklamazio-egilearen proba praktikoa egiteko, hau da: otsailaren 12an, goizeko 10.00etan. Izan be, proba praktikoetara bertaratzea da izangaien eskubidea, ez betebeharra eta eurei jagoke Epaimahaiak ezarritako ordutegira moldatzea eta ez alderantziz.

**HIRUGARRENA.-** Jarraian udal epaimahaiak euskarako proba gaindititutakoen meritoen betiko balioespena egin dau honako emoitza honegaz:

| NAN zkia | Langabezia | Familia egoera | Lan esperientzia | B karneta | Guztira |
|---|---|---|---|---|---|
| 14.576.883-N | - | 1 | 9 | 1 | 11 |
| 30.646.729-B | - | - | 9 | - | 9 |
| 14.586.563-D | - | - | 9 | - | 9 |
| 14.263.200-A | - | 1 | 1,5 | 1 | 3,5 |
| 72.252.242-L | - | 1 | - | 1 | 2 |
| 15.392.174-E | - | 5 | - | 1 | 6 |
| 72.318.213-A | - | - | - | - | 0 |
| 30.652.554-V | - | 3 | 9 | - | 12 |
| 14.950.720-F | - | - | 9 | 1 | 10 |
| 78.874.078-V | - | 3 | 1,5 | 1 | 5,5 |
| 78.914.234-S | - | - | - | 1 | 1 |
| 14.584.605-Y | - | 1 | 9 | 1 | 11 |
| 30.642.898-K | - | 1 | - | 1 | 2 |
| 30.596.875-K | - | - | 9 | 1 | 10 |
| 16.047.235-C | - | 3 | - | 1 | 4 |
| 45.625.263-W | - | 3 | 9 | 1 | 13 |

**LAUGARRENA.-** Udal epaimahaiak egindako meritoen balioespenaren aurkako alegazioak aurkezteko epea amaituko da 2020ko urtarrilaren 31n. Alegaziorik ez balego, emoitza honeik betikotzat joko dira.

**BOSGARRENA.-** Proba praktikoak egingo dira azpian esaneko egunetan eta orduetan eta izangai bakotxak etorri beharko dau behar egiteko jantzi egokiagaz:

Otsailak 3 goizeko 9:00etan: **30.646.729-B**

Otsailak 3 goizeko 9:30etan: **14.586.563-D**

Otsailak 3 goizeko 10:00etan: **14.576.883-N**

Otsailak 3 goizeko 10:30etan: **72.252.242-L**

Otsailak 5 goizeko 9:00etan: **14.584.605-Y**

Otsailak 5 goizeko 9:30etan: **30.642.898-K**

Otsailak 5 goizeko 10:00etan: **30.596.875-K**

Otsailak 5 goizeko 10:30etan: **15.392.174-E**

Otsailak 10 goizeko 9:00etan: **72.318.213-A**

Otsailak 10 goizeko 9:30etan: **30.652.554-V**

Otsailak 10 goizeko 10:00etan: **78.874.078-V**

Otsailak 10 goizeko 10:30etan: **78.914.234-S**

Otsailak 12 goizeko 9:00etan: **45.625.263-W**

Otsailak 12 goizeko 9:30etan: **14.950.720-F**

Otsailak 12 goizeko 10:00etan: **16.047.235-C**

Otsailak 12 goizeko 10:30etan: **14.263.200-A**

DIMA

Dimako Udala

**SEIGARRENA.-** Erabaki hau udaletxeko oholezko iragarki taulan jartzea.

Diman, 2020ko urtarrilaren 31n.

DIMAKO UDALA

DIMAKO ELIZATE PRESTU ETA LEIALA

(BIZKAIA)

Epaimahaiburua: Alfonso Ortuondo Egiraun, Dimako Udaleko funtzionarioa.

Epaimahaikidea: Félix Pérez Santirso, Dimako Udaleko funtzionarioa.

Epaimahaikidea: Nagore Bernaola, Dimako Udaleko funtzionarioa

Idazkaria: Arantza Petralanda Idiondo, Dimako Udaleko funtzionarioa.